
askotan alderatu izan da Derek Jarmanen zinemagintza Bill Douglas zinemagile eskoziarrarenarekin; biak iraultzaileak izan ziren LGTB bizitzak kontatzeko orduan. Douglassek haurtzaroa filmetan kontatu zuen; Jarmanek, berriz, haurtzaroan irudikatutakoa bere lorategian gauzatu zuen.

Jarmanek erakutsitako bide berriek egungo lorezain aurrerakoien kartografia osatzen dute. *A Garden Manifesto* bilduman lorategi dekolonizatzailearen kolektiboa aipatzen da (Instagramen zabaltzen dute haren lana). Ildo berri horrek lorategia modu ekologikoan lantzea proposatzen du, eta lorategi basatien edertasuna aldarrikatu. Laingen saiakera krisialdi ekologikoak zeharkatzen du. Lorategi dekolonizatzaileak aldarrikatzen du belar txarren edertasuna, osagai kimikorik erabiltzen ez duen lorezainak lorategi alternatiboa irudikatuko du. Euskal literaturan, Mari Luz Esteban poetak belar txarra aldarrikatzen du, eta Lizar Begoña poetak, existitzen ez diren lorategiak. Laingen saiakeran bezala lorategia eta utopia elkarrekin doaz Lizar Begoñaren *Lorategia* poeman: «Itsaso Horitik lorategirainoko gepardo japoniarrek / lurralde libre baterantz doazen abereak dirudite». Lorategia erresistentzia berrien eremua da. ●

KRITIKA

Neurria hartzea

Asier Urkiza



'ERBESTE'
Egilea: Juan Garzia.
Argitaletxea: Erein.

Euskal literaturan itzultzaile gisa da, akaso, ezagunagoa Juan Garzia. Izan ere, Melville, Shakespeare edo Beckett bezalako erraldoiak ekarri ditu euskarara, kalitate handiko itzulpenetan. Idazlea ere bada, ordea. Fikziozko sormen lanik argitaratzen ez zuela 30 urte bete berritan, *Erbeste* nobela kaleratu du, bere ibilbideko bigarrena. Frantsesez *nouvelle* izendatuko genukeen generokoa da lana, nobela petoaren eta ipuinaren arteko 100 orrialde eskaseko kontakizuna.

Atzerrian urte mordoa eman eta gero herrira itzuli da emakumezko protagonista. Sortetxera, Tolosako baserri-auzo batean kokatutako familiaren baserrira. Etxera buelta horren lehenbiziko egunak kontatzen dira nobelan, aitarekiko eta nebarekiko harreman berrartuaren gorabeherak eta hogeitaka urteetan zeharo aldatuta dagoen inguruaren peskizak. Familia bisitatzera eta sustraiekin birkonektatzera ez ezik, ordea, aspaldiko kontu ilun batzuk argitzera ere etorria da protagonista sorterrira. Baserriko maiorazkoaren heriotza tragikoa eta horrek familian eragindakoa ulertu nahi du; horren haritik, herrian gertatutako ezbehar latzaren berri ere izango du, aitaren negozio-bazkide izandako Goñi indianoaren familiaren heriotza misteriotsua. Intuizioari kasu eginez eta iluntasunean argia jarri nahian, ikerketan arituko da protagonista, garai hartako lekukoak elkarrizketatuz.

Inguruaren inpresioak jasotzeko gaitasun berezia erakusten du protagonistak. Ikusi bakarrik ez, begiratu egiten du, argazkilari sena lagun. Espazioa zein jendea aztertzeko pertzepzio zorrotzak berak jartzen du ikertzailearen paperean. Zerbait bada, bere buruaren ikertzailea da izenik ezagutzen ez diogun emakumezkoa. Iragana ulertu nahi du, familia hondamendira ekarri zuen istripua eta amak berari dion ezinikusia. Urteak atzera handik eskapu egitera bultzatu zuen korapiloa desegin nahi du, aitaren mututasuna deszifratu eta harekin komunikatu, hartara isiltasun horren putzu sakonari neurria hartzeko. Barru-barruan sartuta daukan hori, beharbada bizitza osoa markatu diona, ulertu nahi du. *Sarkin* izateak berak, hau da, etxean arrotz izateak emango dio aukera horretarako: «Kanpotik ikusteak bakarrik ematen baitio zentzua barrukoari».

Hori da, berez, liburuko gai nagusietako bat; alegia, nola distantziak —urruntzeak— erraztu dezakeen hurbileko zerbaiten ulermena. Lengoaia literarioaren goraipamena ere bada, fikzioaren ezleku hartatik har baitakieke neurria bestela atzeman ezinak liratekeenei, iradoki daitezke eguneroko hizkuntzak artikulatu ezin ditzakeen galderak. Goñitarren triskantza, Don Anjel eta *mulata*-ren artekoa eta, batez ere, protagonistak horiez jakiteko duen tema zera da, emakumezkoak aitarengana hurbiltzeko duen modua. Familiako kontu esanezinak argitu ezinda, herrikoak ikertzeari emango zaio. Begirada kanpora, barrurako indarrez ari denean. Eta azkenean, onartu beharreko *gu* suerte bat aurkitu. Hori dena hizkuntza bizi, pipertsu eta malguan emana. ●